



ONDARROAKO UDALA

Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko apirilak 20

Ordua: 18:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Oier Espilla, Irene Zaton, Mari Kruz Lekunberri, Aitor Maruri, Miren Lore Zabala, Ibai Muñiz, Garazi Ezkurza, Fernando Salegi, Joseba Zabaleta

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – Batzordearen funtzionamentuari buruz

- Azken hileetan egin den modura, batzordetik batzordera sortzen diren gaiak email bidez komentatzea ondo ikusi da, batzar gehiegi egin beharrik eduki barik. Ekintzen koordinazio lanak ere horrelaxe egingo dira.
- Batzordearen aktak Ondarroa.eu helbidean daude, Ingurumenaren atalean.

3 – ZUHAITZ ASTEAREN balorazioa

- Habiak eta zuhaitzak ipinitzea ondo egon zen. Artamuturrean ume batzuk zuhaitzak landatzen zituzten bitartean besteek habiak ipini zituzten. Gero parkean ere habiak ipini ziren. Hor umeak aspertu egin ziren, eskailera bakarra zegoelako, eta gehienak begira egon zirelako. Handik egun batzuetara Zaldupekoek zuhaitzak landatu zituzten euren ikastetxean, eta habiak ipini.
- Nahia Gartziaren hitzaldia interesgarria izan zen. Berak egindako ikerketa azaldu zigun, gaur egungo basogintza ereduak higadura bultzatzen duela demostratuz. Ikastetxeetan errepikatzeke moduko hitzaldia.

4 – URAREN HILABETEA

- Kaiet komikia bukatzen ari da, erabiltzen dugun uraren ibilbidearen inguruan. Komikiaren gidioa emailz bidali zen eta ontzat eman da. Komikia ikastetxeetan banatuko da, eta beste laku batzuetan ere eskuragarri ipiniko da (liburutegia, web orria...)
- Maiatzaren 17an Galtzuarango araztegia eta Gorozika bideko ur biltegia bisitatuko ditugu. Partzuergoek azalpenak emango dizkigute. Bizikletan Gorozikara zenbat joango diren zehaztu behar da. Baita zenbat ezindu dauden ere.



ONDARROAKO UDALA

- Maiatzaren 26an erreka garbituko da, eguerdian, Ur Kirol elkartekoekin eta Gazte lekuko gazteekin. Gero luntx ekologikoa egongo da lan egin dutenentzako.
- Maiatzaren 18tik 28ra erakusketa egongo da Udal Erakusketa Aretoan, erabiltzen dugun uraren ibilbideari buruz. Kaieten biñetak izango dira. Komikia ere eskuratu ahal izango da.
- Ekintza hau egiteko URA agentziaren dirulaguntza lortu dugu.
- Behin Plazakolako zentral hidraulikoa bisitatu zutela aipatu dute ikastetxeetako ordezkariak. Hurrengorako ideia bat izan daiteke.
- Obrak egiterakoan ur azpiko euri biltegiak ez direla egin salatu da.

5 – HONDARTZAKO TABERNAREN PLIEGOAK

- Hondartzaren ardura ingurumen batzordearena denez, hondartzako tabernaren pliegoen onarpena ere geuk egin behar dugu.

- Puntuaziorako zenbait irizpide gehitu dizkiogu: ezindu eta langabetuak baloratzea, zaborraren bilketa selektiboa...
- Ezinduen kontrola zelan egingo den galdetu da. Langileak gizarte segurantzian emango dute izena, eta horren arabera kontrolatuko da zein dagoen lanean, eta ezintasunik baduen ala ez.
- Urteren batean komunaren erabilpena kobratu egiten zutela aipatu da. Hori ezin dute egin.
- Ea zergatik ezin den ahalkoldun edaririk saldu galdetu dute. Baina saldu daitezke.

6 – ALLERI BERRESKURATZEA eta ALLERIKO BIODIBERTSITATEA AZTERTZEA

- Datorren urterako asmoa zen ekintza hauek egitea, baina aurten diru gutxi gastatzen ari garela ikusita (zuhaitz astean eta uraren hilabeteetan), aurten ekintza hauek lantzen hastea erabaki da.
- Bi proposamen egin dira:
- Bata: Debanatura elkartearekin Alleriko biodibertsitatea aztertzea (hegaztiak, anfibioak...) eta udazkenean ikastetxeekin irteerak egitea Debanaturaren eskutik, eta baita herritarrekin ere.
- Bestea: Udalean dagoen Alleri berreskuratzeko planak 400.000 euro gastatzea aurreikusten ditu. Diru hori ez daukagunez, plan hori faseka ipintzea proposatzen dugu. 40.000 euro inguruko faseak eginda, apurka apurka berreskuratzen joan gaitzke. Gainera, geologikoki interesgarriagoa da horrela egitea, lurrak eta urak zer joera hartzen duten ikusteko. Bestetik, proiektua bera ere aldatu nahi dugu apur bat: oraingo proiektuan padura barrutik bideak egitea aurreikusten da. Egokiagoa da begiralekuak-eta gaur egungo pasealekuan egitea, eta paduran biderik ez egitea. Hau dena egiteko txostenak 17.000 euroko aurrekontua dauka, eta Itsaspen dirulaguntzetara aukeztuko da.
- Dirulaguntza emanez gero, dena egingo da. Bestela, biodibertsitate ikerketa bakarrik.
- Ontzat eman da proposamena

7 – BESTERIK



ONDARROAKO UDALA

- WiFiren inguruan zer irizpide jarraitu eztabaidatu da. Ez dago iritzi argirik, baina zalantzaren aurrean prudentziaz jokatzeko ontzat eman da.
 - Eskola Agenda 21ean datorren urtean ere kontsumo arduratsua lantzen jarraituko dute.
- Udalak plenoan LZP-PTParen inguruko mozioa onartu zuen. Ez da ontzat hartu LZP hori duela urte askoko datuekin egitea, eta herritarren parte hartzea kontuan hartu barik.